

KANALAK

Bezeroekiko komunikazioa funtsezkoa da KAR-CAR-KAR en arrakastarako. Komunikazio hori hainbat kanal bidez gauza daiteke: posta elektroniko bidez (Gmail), chat bot-ak aplikazioan, sare sozialetan mezuak bidaliz edo webgunean kontaktu formularioak erabiliz. Horrela, erabiltzaileek zalantzak argitu, informazioa jaso eta zerbitzuari buruzko iradokizunak eman ditzakete modu azkar eta erosoan.

Produktu eta zerbitzuen banaketa kar-car-kar aplikazioaren bidez egiten da nagusiki. Aplikazioa App Store edo Google Play bezalako dendetan eskuratu daiteke, erabiltzaileek beren telefonoan instalatu eta ibilgailuak erreserbatu, erabiltzeko prest egon daitezten. Horrela, banaketa digitalean oinarritutako eredu eroso eta azkarra eskaintzen da, non erabiltzaileek nahi duten unean eta nahi duten lekutan ibilgailua erabil dezaketen.

Produktu eta zerbitzuen salmenta ere aplikazioaren barrutik gertatzen da. Erabiltzaileek ibilgailua alokatu, maileguan hartu edo harpidetzak kontratatu ditzakete zuzenean app-etik, ordainketa seguru eta sinple baten bidez. Horrela, salmenta eta ordainketak modu digitalean kudeatzen dira, bezeroaren esperientzia eroso eta arina izan dadin.